

# ANTTON INDIAN

© FRANTXOA COUSTEAU

1 : Hegazkina. ( Musika : Denak aitzinatzen dira.)

**Bidaiari 1** : Bidaia handi bat eginen dugu elgarrekin, biziki urrun joanen baigira.

**Bidaiari 2** : Hegazkina hartuko dugu Indiarat joateko.

**Bidaiari 3** : Hiri handiak badira, Indian : Delhi, Bombay, Madras, Calcutta...

**Bidaiari 4** : Bainan gu, "Agra" hiri zaharrera joaiten gira.

**Bidaiari 5** : Karrika jendetsuak eta harresiak ikusiko ditugu...

**Bidaiari 6** : Bai eta Taj-Gate eta Taj-Mahal gaztelu zaharrak.

**Bidaiari 7** : Gainera gertakari handi bat izanen da : Indiako erregea ezkonduko baita.

\*Musika berdina : **Zerbitzari** batek gidariaren kadera ekartzen du, **C** –tik.

**Gidaria** : Jaun andereak, ongi etorri Indian Air Lines Konpaniarat. Jar zaizte goxoki...

(*Bidaiariak jartzen dira*) : Eta uhalak esteka.

(" **Klik !...**" jokoa, banazka) : Bidaia on !... Kasu, hegazkina airatuko da !

\*Hegazkinaren zarata : Gorputzarekin erakutsi hegazkina airatzen dela.

**Zerbitz. 1** : (*Zarata eztitu eta*) : Jaun-andereak, Indian Air Lines konpania biziki ohoratua da...

**Zerbitz. 2** : Zeren hainbeste ezaguna den Antton Abadia jakintsun handia gurekin baita...

**Zerbitz. 1** : Hainbeste da famatua nun Indiako erregeak bere ezkontzara gomitatzen duen.

**Zerbitz. 2** : Jakin ezazue gizon huni esker dugula bidaia hau antolatu ahal izan...

*\*Denek txalotzen dute. **Antton** xutitzen da eta doi bat konkortzen. Jartzen da.*

**Gidaria** : Gure konpaniak edari bat eskainiko dizue.

\*Hegazkinaren zarata entzuten da beti, ezti ezti :

**Zerbitz. 1** : Jauna, kafe bat edo jusa bat proposatzen ahal dizut.

**Zerbitz. 2** : Andere, kafe bat edo jusa bat ?...

*\* Gauza bera, hiruzpalau aldiz. Hitzak eta hegazkinaren zarata aldizka entzunen dira.*

**Zerbitz. 1** : Jaun-andereak, jakin ezazue abantxu helduak girela.

**Zerbitz. 2** : Plazer baduzue, egon jarririk eta uhalak lotu.

\*Hegazkinaren zarata :

\* "**Klik !...**" jokoa, banazka.

\*Hegazkinaren zarata, jeusten ari :

*\*Gorputzarekin erakutsi hegazkina lurreratzen dela.*

**Zerbitz. 1** : Bidaiari maiteak, helduak gira.

**Zerbitz. 2** : Agra hirian gira, Indian.

**Zerbitz. 1** : Espero dugu bidaia goxo bat iragan duzuela.

*\*Jendeek txalotzen dute.*

\*Musika :

*\***Gidaria** ateratzen da, **C** , bidaiariak lehenik eta gero publikoa agurtuz.*

\* "**Zerbitzari 1**"- ek kadira kentzen du, **C** .

**Zerbitz. 2** : Ateratzen ahal zirezte. Agur eta milesker...

*\*Bi lerro egin eta, ateratzen dira : lerro bat bakarrik, eta gero bestea. Eskuarekin agurrak.*

**Zerbitz. 1** : (*Irripartsu*) : Agur, Antton Abadia jauna. Egonaldi on egin ezazu...

**Zerbitz. 2** : (*Berdin*) : Agur jaun-andereak ; Egonaldi ona izan ezazue...

**Bi zerbitzariak** : (*Kopeta torratuz, akituak bezala*) : Ouf !... Lana bukatu da...

**2 : Indiako hiri batean.**

*\*Indiako musika :*

*\***Antton C** aldetik agertzen da, denetera ongi begiratzuz, baita larga bistak erabiliz ere.*

*\***Bi neska** sartzen dira, **J** eta **C** .*

**Neska 1** : Egun on Antton !

**Antton** : (*Harrapatua*) : Bainan, nere izena nola badakizue ?...

*\***Bi neskek** misterioz betetako itxura agertzen dute.*

**Neska 2** : Guk badakigu dena !...

**Neska 1** : Badakigu ere kazetaria zirela....

**Antton** : Indiarat etorri naiz artikulu baten idazteko... Erregearen ezkontzari buruz.

**Neska 2** : (*Harritua*) : Ganesh Erregea !?... Ongi !... Ezagutzen duzu ?

**Antton** : Bai, nere laguna da.

**Neska 1** : Taj Mahal gaztelu aitzinerat ateratzen da goiz guziz...  
(*Publikoari, itzuliz*) : Pobre guziak hor dira.

**Neska 2** : Ganesh erregea oso xintxo da,  
(*Publikoari, itzuliz*) : Eta pobreeri janaria emaiten die.

**Neska 1** : Kuraia on !... (*Ateratzen dira, **J** eta **C** , mixterioski*).

**Antton** : Bainan nor dira horiek ? Sorginak edo ? Kasu egin behar dut.

*\*Indiako musika bat :*

*\***Antton** gibelatzen da ateratzeko bainan jendeak denetik sartzen dira, **J** eta **C** .*

*\***Antton** xoko batean gelditzen da, **J** .*

*\*Taulada zolatik aitzinera buruz abiatzen dira, eta **Antton** kurutzatzen dute, **J/C** ; **C/J** .*

*\*Bidaia arrotz balisaduna harridurazko begi handiekin begiratzuz dute.*

*\***Antton** hola egonen da ixtan bat, tente potente, publikoari buruz.*

*\*Denetarik bada : zahar, gazte, maingu, fraile, jaun-handi, mutil, harro eta herabe.*

*\*Musika apaltzen da .*

**Antton** : Oh... Zenbat jende den hemen !... Milaka izan behar dira !...

*\*Musika apalago : orai jendeak biziki emeki ibiliko dira.*

*\* Musika ixiltzen da : "**ixtura gelditze**" bat egiten dute.*

**Antton** : Zer beroa egiten duen, ez da Euskal herrian bezala...

Oh !... Hori izan behar da Taj Mahal : zoin pollita den !  
Eta behiak denetan ikusten dira !... Bide erdian egoiten dira berdin, eta dena blokatzen dute...  
Eta jendeek ez dute deusik erraiten !  
Horiek izan behar dira behi sakratuak !

*\*Musika pitta bat :*

*\*Jendeak emeki emeki **Antton**-eri buruz hurbiltzen dira : eskua luzatzen diote, eske.*

*\*Dei edo musika berezi bat entzuten da orai : Erregeak goizeko bisita eginen du.*

*\*Jendeen aurpegia argitzen da.*

**3 : Erregearen bisita.**

**Jendeak** : Erregea !... Erregearen bisita !... Ganesh erregea !...  
Aupa erregea !... Aupa Ganesh erregea !...

*\*Gazteluaren bi aldetan emaiten dira fite fite.*

*\*Gazteluko ateak idekitzen dira orai : musika berezi bat : denak konkortzen dira.*

*\***Erregea** agertzen da, **C**, emazte **gaia** bere ondoan duela, bai eta **bi soldado**.*

**Jende bat** : Egun on errege maitea !...

*\*Erantzun gisa, **soldadoak** aitzinatzen dira, briu brau, beren nagusiari leku egiteko.*

**Soldadoa** : Atera zaizte hortik, jende piltzarrak !...

**Erregea** : (*Aitzinatzen da, begi gaixtoa du*). Ni Ganesh naiz, Indiako erregea !...  
Herri huntako gizon azkarrena naiz !...  
Hemen duzue Raksha, nere andregai, laster ezkonduko gira...

**Jende bat** : Zorionak, errege maitea !...

**Erregea** : Ixil !

**Jende bat** : Bainan... Bainan erregea... zer duzu ?...

**Erregea** : Ixil edo lepoa mozten dizuet !...

**Jende bat** : Zer ?... Janaria, otoi... Gose gira...

**Soldadoa** : Ixilik !...

**Jende bat** : Gose gira... Otoi, erregea, otoi...

**Erregea** : Berdin zait !... Erregeak ez du gehiago janaririk emanen !...

**Jende bat** : Bainan, orain arte, egunero emaiten zinuen !...

**Erregea** : Legeak aldatu ditut !... Etxera banoa : kasu norbait entzuten badut !...

*\*Musika bat : Denek **Antton** begiratzen dute, **J** aldean emana.*

*\***Antton** ikusten dugu, zainetan da : Ganesh bere lagunaren jokabidea ez du ulertzen.*

**Antton** : Bainan, errege, ez dut ulertzen : zer duzu ?... Ni naiz, Antton !!...

**Erregea** : (*Lehen sorpresa pasatuta*) : Antton ?... Soldadoak, harrapa zazue !...

*\*Musika bat :*

*\***Lasterkada bat** fierra... **Antton**-ek ihes eginen du, doi doa, **J**.*

**Erregea :** (*Hatsantuak diren soldadoeri*). Asto ziriak !... Inutilak zuek !...

*\*Musika berdina :*

*\*Gaztelura sartzen dira, C . Bainan jendeak hor egoiten dira, harrituak...*

**Jendeak :** Bainan zer du ?...

Zergatik hola gaixtoa da ?...

Bitxia da !... (*Antton aipatuz*) :

Eta gizon hori, ikusi duzue ?... Nor da ?...

**Soldadoa :** (*Berriz agertzen da*). Zoazte etxerat, aditu ?

*\*Musika berdina :*

*Denak desagertzen dira, taulada zolatik J eta C .*

**4 : Erregea bere etxean.**

**Antton :** (J-tik sartuz) : Bainan zer du ba, erregeak ? Ez da posible : burua galdu du ala ?...

*\*Musika bat entzuten da :*

**Antton-ek** ihes egin nahi du.

*\*Bi neskak sartzen dira, J eta C .*

**Neska 1 :** Zaude lasai, Antton : gu gira !...

**Antton :** Bainan zer pasatzen da ?...

**Neska 2 :** Ikusi dugu, bai... Erregea... (*Holako keinu bat egiten du, erregea bitxi dela*).

**Neska 1 :** ... Biziki bitxia da !...

**Antton :** Bitxia, eta... Gaixtoa !!...

**Neska 2 :** Kasu emazu, lanjerrean zira... (*Beharria luzatuz*) : Ixo, zerbait entzuten dut...

*\*Musika bat entzuten da :*

*\*Bi neskak frixt J eta C aldetik ateratzen dira.*

*\*Antton ateratzen da, J aldetik.*

*\*Orai argiak pixka bat apaltzen dira.*

*\*Soldadoek mainu gela xingle bat antolatzen dute : harriaska eta esku-oihala.*

*\*Erregea taulada erdiraino aitzinatuko da : mainuko jauntziz, ikuzteko.*

*\*Soldadoak erregearen gibelean egonen dira.*

**Erregea :** (C-tik sartuz, *sehiari deika*). Munia, etorri !...

**Munia :** (*Sartzen da C , prestuki, umil*). Bai, errege maitea ?...

**Erregea :** (*Bortitz*). Nere usain ona !...

**Munia :** (*Kasu eginez, eztiki*). Aizu, zergatik hola zira ?... Zergatik ez duzu gehiago janaririk eman nahi pobreeri ?...

**Erregea :** (*Izigarri bortitz*). Ekarri nere usain ona !!...

**Munia :** (*Umilki konkortuz*). Bai, segidan... "Chanel" bost zenbakia ?... (*Ateratzen da, C*).

**Erregea :** Bai, segidan !... (*Atorra jalgitzen du : orbain handi bat agertzen du, papo gainean*).

**Munia :** (*Orbaina eskuarekin erakutsiz, oihu bat botatzen du*). AAAHHH !!!... Zer da hori ??...

**Erregea :** Zer duzu, Munia, burua galdu duzu ?

**Munia :** Bainan ez zira egiatzko erregea !!... Nor zira ?... NOR ZIRA ??...

**Erregea** : Ah nor naizen ?... Ikusiko duzu !!...

*\*Musika bat :*

*\*Soldadoek* beren ezpatak ateratzen dituzte eta gora altxatzen. **J** eta **C** emaiten dira.

*\*Erregea* taulada zolan egoiten da, besoak kurutzaturik, irriño mingar bat ezpainetan.

*\*Bi soldadoek* alegiazko pareta bat bezala egiten dute.

*\*Munia*, izitua, **J** eta **C** doa, lasterka. "Jo" eginen du soldadoen kontra. Erortzen da lurrera.

**Erregea** : Eman ezazue kanpora !... (Bi soldadoek eramaiten dute, **C**).

**Erregea** : (Usain ona papoan emanaz). Munia hortan ez dut sekulan konfiantzarik ukan... Orain ezkontzarako prest naiz... (Ateratzen da, **C**).

### **5 : Anttonen ikerketa.**

**Kondalaria** : Antton kazetaria etorria zen Indiarat Ganex erregea bere lagunaren ezkontzarako. Bainan erregea kanbiatu da eta orain biziki gaixtoa da. Zer pasatzen da ?

*\*Musika ezti bat :* Eguna pittanaka altxatzen da.

*\*Jendeak* ateratzen dira toki guzietariki, kontent dira :

**Jendeak** : Erregea ezkonduko da !... Erregea ezkonduko da !...

Egun handia da !... Pesta eginen dugu !...

Aupa erregea, aupaa erregina !... \*Taulada husten da.

*\*Musika bat :*

*\*Antton* sartzen da, **J**, lanpa bat eskuan. Denak begiratzen ditu.

**Antton** : Ez dut sinesten ahal, hori ez da Ganesh erregea. Ganesh izigarri zintzoa da, ez du holakorik egiten ahal.

*\*Musika berdina :*

*\*Bi neskek* sartzen dira berriz, **J** eta **C**.

**Neska 1** : Orduan, Antton, beti kezkatua zira ?...

**Neska 2** : Ikerketak segitzen dituzu ?...

**Antton** : Neskak, erran nezazue, zer pasatzen da ?

**Neska 1** : Guk ez dakigu...

**Antton** : Bai, badakizue !

**Neska 2** : Baditake...

**Antton** : MINTZA ZAIZTE !!!...

**Neska 1** : Ganesh kolpatua da...

**Neska 2** : Ez da Ganesh ezkonduko dena, bainan bere anaia.

**Antton** : Bere anaia ?

**Neska 1** : Bai, Nishanta, bere anai bixkia.

**Antton** : Bere anai bixkia ?... Nola du izena ?

**Neska 2** : Nishanta... Ganesh bere anaia hil nahi izan du.

**Antton** : Bere anaia ?... Zergatik ?

**Neska 1** : Errege izan nahi baitzuen.

**Antton** : Eta Ganesh ?... Nun da ?... Berriz etorriko da ?

**Neska 2** : Bai, guk artatu dugu, eta sendatu.

**Neska 1** : Sorpresa ukanen duzu, hor da... (*Neskak ateratzen dira, J eta C*).

**Ganesh** : (*Sartuz, J, irripartsu*) : ANTTON !... ANTTON !... Nere laguna !... (*Besarkatzen dira*).

**Antton** : GANESH, ene laguna !... Kolpatua zira ?... Zer egingen duzu orain ?...

**Ganesh** : Zaude lasai, Antton, zerbait egingen dugu... (*Biak ateratzen dira, J*).

**6 : Erregearen ezkontza.**

**Kondalaria** : Antton-ek berria zabaldu du, baizik eta Nishantak bere anaia izorratu nahi duela.

**Kondalaria** : Nishantak uste du Ganesh hila dela. Raksha-rekin ezkonduko da, bere anaiaren orde.

*\*Musika ospetsu bat :                      \*Zeremonia muntatzen da orai ; herritarrak hurbiltzen dira.*

*\*Espos gaiak sartzen dira, C-tik. Txaloak.*

*\*Apezpikua igaiten da alki baten gainera. Denak ixilarazten ditu.*

**Apeza** : Jende maiteak, egun handia da gaurkoa : Erregina berri bat ukanen duzue !...  
Ganesh, Rakhsa anderearekin ezkondu nahi duzu ?

**Erregea** : Bai, nahi dut.

**Apeza** : Rakhsa, Ganesh erregearekin ezkondu nahi duzu ?

*\*Zaldi batzu entzuten dira etortzen direla eta gelditzen :*

*\*Antton eta Ganesh sartzen dira orai, J-tik. Jendeak harrituak dira :*

**Ganesh** : Zu, errege faltsua zira : Nishantha zira, nere anai bixkia !...

**Nishantha** : Ez !... Ni naiz erregea !...

**Jendeak** : (*Harrituak*) : OOOHHH !!!...

**Munia** : (*Ganesh-en gibeletik agertzen da*). Nishantha, zure atorra jalgi ezazu !...

**Nishantha** : Zaude ixilik, zu !...

**Ganesh** : Nishantha, zure atorra jalgi ezazu !...

**Nishantha** : (*Apeza begiratzen du*).

**Apeza** : Errege, egizu galdegiten dutena !...

**Nishantha** : (*Atorra jalgitzen du*).

**Munia** : (*Eskua luzatuz*) : Nishantha da, papoan orbaina badu !

**Jendeak** : (*Harrituak*) : OOOHHH !!!...

**Ganesh** : Hor duzue froga !... Ni naiz herri hontako erregea !...

**Jendeak** : (*Oihuka*) : GANESH !... GANESH !... GANESH !...

**Apeza** : (*Jendeeri*). Ixilik, otoi !... Lehenik, bi anaiek bakea egin behar dute !...

**Nishantha** : (*Apaltzen da bere anaiaaren aitzinean. Ganesh-ek eskua espalda gainean emaiten dio*).

**Jendeak** : (*Txalotuz*) : UUAHH !...

**Nishantha** : (*Baztertzen da, eta bere aldera joaiten da, C* ).

**Ganesh** : (*Raksha-ren eskua hartzen du*).

**Jendeak** : (*Oihuka*) : EZKONTZA !!... EZKONTZA !!... EZKONTZA !!...

**Apeza** : (*Eskua altxatuz. Ixiltasuna*) : Ezkontza bertzaldi batez eginen dugu !... (*Jausten da*).

*\*Musika airosa eta dantza :*

*\*Musika geldi : "itxura gelditze".*

**Kondalaria** : Ganesh eta Raksha ezkondu ziren, uros bizi izan ziren, eta haur ainitz ukan zituzten.

*\*Musika airosa eta dantza.*

**Bukaera.**


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ildo beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez [antzerkia@eke.eus](mailto:antzerkia@eke.eus) helbidera idatziz.



[antzerkit.eke.eus](http://antzerkit.eke.eus)

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse [antzerkia@eke.eus](mailto:antzerkia@eke.eus).